

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es



Irati Iciar, udako ikastaroen arduraduna, eta Karmele Artetxe, UEUko zuzendaria, ostegunean Elkar Komediak liburudendan.

CALLEJA

UEUk inoiz baino ikastaro gehiago emango ditu bere udako eskaintzan

Iruñean hamaika ikastaro eskainiko dira, uztailaren 22tik 24ra, Jaso Ikastolan

Zailtasun ekonomikoei aurre eginez, guztira 41 ikastaro antolatatu dituzte, '40 +1' lelopean

DN Iruñea

Iazko egoera ekonomikoko zail berdinean, 41 ikastaro antolatatu ditu Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), pasa den urteko arrakasta errepikatzen asmoarekin. Uda-koenak bat egiten du dagoeneko martxan duen *Ni ere, UEU* kanpainarekin, zeinak UEU ezagutara eman eta proiektuarekiko atxikimenduak jaso nahi dituen.

Iaz azken garaietako ikastaro kopuru handiena eskaini bazuten 40. urteurrena ospatzeko, aurten erronka horri eutsi eta 41 aurkeztu dituzte, *40+1* lelopean, "iaz bezain arrakastatsua izango direlaren ilusioarekin", esan zuen

Karmele Artetxek, UEUko zuzendaria, Iruñean egindako aurkezpenarekin. Aurtengo ikastaroak horrela banatu dituzte: 20 Eibarren, 9 Baionan, 11 Iruñean (Jaso Ikastolan) eta bat Gernikan. Izena emateko epea zabalik dago.

Iaz %31a igo ziren udako ikastaroen matrikulak. "Azken bi urteak UEUrentzat ekonomikoki oso zailak izaten ari dira. Egoera honek, ordea, gure oinarri soziala indartzeko balio izan du", aitortu zuen Artetxek.

Lau hamarkada daramatza UEUk euskara eta unibertsitatearen alde lanean. Denbora tarte horretan UEUk egindako ekarpena handia izan da: euskara uni-

IRUÑEKO IKASTAROK

AHOTS-TEKNIKA IKASTAROA
Ahotsa nola erabili, garatu eta proiektatu. Emoziak atera.
Iraupena: 12 ordu

TRANTSIZIOA EUSKAL HERRIAN? IKUSPEGI BERRIAK
Ikastaro honek Euskal Herrian Trantsizio garaian emandako aldaketak aztertzea izango du xede, horregatik alor ezberdinak jorratu nahi ditugu. **Iraupena:** 20 ordu

EUSKARA ETA KIROLA: EUSKARA SUSTATZEKO EREDU ETA BALIABIDEAK
Kirolean euskararen benetako erabilpenari dagokion ereduak jaso eta proposamen zehatzak biltzea izango da helburua. **Iraupena:** 12 ordu

EUSKAL HERRIKO EKONOMIA ETA GIZARTEA, DIAGNOSTIKORAKO LANABESAK
Ikastaroaren eduki nagusiak: datuen auzia, informazioa eskaintzeko Gai-ndegiak sortutako lanabesen aurkezpena eta zenbait gairen azterketak utzitako emaitzak. **Iraupena:** 10 ordu

ESKOLA KOMUNITATEAN ETA KOMUNITATEA ESKOLAN: XXI. MENDEKO ERRONKAK
Hezkuntza sistema aldaketarako baliabidea da eta gizarte hezkuntza sistemako parte da. Zer proposatzen dute partidu politiko desberdinek? Ze irizpide bultzatzen dituzte Europatik? **Iraupena:** 15 ordu

GURASO/HEZITZAILE ETA HAURREN ELKAR ULERTZEA
Nola hitz egin haurrei, entzun diezaguten... Nola entzun, hitz egin dezaguten... **Iraupena:** 20 ordu

GAZTEAK, SEXUA ETA SARE SOZIALAK
Zein eragin dute komunikabide berri hauek gazteen harremanetan? Sexismoa gutxitu edo areagotzen dute? **Iraupena:** 15 ordu

JENDAUERAKO KOMUNIKAZIOA
Jendaurrean hitz egiteko teknika eraginkor eta sinpleak ikastea da helburua. **Iraupena:** 20 ordu

ESTRESAREN TENTSIOTIK, BATEKOTASUN BIZIGARRIRA
Nola lortu tentsioa bideratzea eta lasaitasuna areagotzea? **Iraupena:** 12 ordu

NEUROPSIKOLOGIA
Pertsonen lan egiten dugunean agertzen diren zailtasunak identifikatzeko. **Iraupena:** 10 ordu

LURZORUA: LEHORREKO BIZITZAREN SOSTENGUA
Lurzoruak ekosistema lurarren oinarria dira. Lurzorua baliatzen duten langileekin ere arituko gara, gure artean hausnarketarako eta eztabaidarako tarte zabalduz, besteak beste. **Iraupena:** 18 ordu

bertsitate esparruan landu zitekeen apustua egi bihurtzea, euskarazko hiztegi teknikoaren definizioa, euskal komunitate zientifikoarentzat bilgune izatea, proiektu berritzaileak martxan jartzeko gaitasuna, unibertsitate-mailako testugintzan eta formazioan egiten duen lan erreferentziazkoa eta, noski, Euskal Unibertsitatearen aldarria.

"Gure bazkide eta gertu ditugun erakunde eta banakoek erakusten ari diguten babesa eta laguntza izugarria izaten ari da, eta horrek beste hainbat urtez aurrera egiteko nahikoa indar ematen digu", azpimarratu zuen Artetxek. Irati Iciar-ek, UEUko Uda-

ko Ikastaroen arduradunak, ikastaroei dagozkien xehetasunak azaldu zituen: "Sei jakintza arloetan banatuta egongo dira: artea eta musika, giza-zientziak, ingeniariak eta teknologia, osasun zientziak, zientziak eta gizarte zientziak eta azken hau izango da jakintzarik nagusia". Iciarren esanetan, aurten hiru formatu desberdineko ikastaroak daude: espezializatuak, dibulgazio-ko ikastaroak eta garapen pertsonalekoak. Ikastaroei batera, hiru jardunaldi antolatatu dituzte.

Ikastaroei buruzko informazio guztia www.ueu.org helbidetan dago.



agenda

Maiatzak 23, osteguna

AHOZKO NARRAZIOA

Karabi Karaba

Kontalaria: Inés Bengoa

4-8 urte bitarteko haurrentzat

San Frantziskoko Udal Liburutegia. 17:30. Sarrera librea

Kantu eta hitza 2013

KONTZERTUAK

Jabier Muguruza. Bikote bat

Erraldioen Txokoan (Descalzos 72). 20:30. Sarrera doan, aurretik gonbidapena hartuta

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es

Jabier Muguruzak hasiera emango dio 'Kantu eta Hitza' zikloari ostegunean

• Bere diska berria 'Bikote bat' aurkeztuko du 20:30tik aurrera Erraldioen Txokoan, pianoa eta akordeoiarekin lagunduta

DN Iruñea

Bikote bat. Horrela dio Jabier Muguruzaren diska berria, hurrengo ostegunean Iruñean aurkeztuko duena, *Kantu eta Hitza* ziklo intimoari hasiera emateko, 20:30tik aurrera. *Bikote bat* Muguruzaren azken lan honek sakondu egiten du konposizio eta literatur maila handiko joeretan, Bernardo Atxaga, Iñaki Irazu,

Harkaitz Cano eta abarren testuak erabilia. Horiei, besteak beste Joan Baezen eta The Eaglesen kantak konposatu dituen Jackson Browne kantautore estatubatuar ospetsuaren ekarpen garrantzitsua gehitu behar zaie. Jabier Muguruzak Mikel Azpiroz (Elkano Browning Cream, Parafunk, Fermin Muguruza) pianoa izanen du lagun.

Sarrera doan da, aldez aurretik gonbidapena hartuta aforoa bete arte. Gonbidapenak Erraldioen Txokoan bertan hartzen ahal dira, emanaldia hasi baino ordu bete lehenagotik.

Iruñeko Udalak antolatuta, aurtengo *Kantu eta Hitza*-n sei



Jabier Muguruza.

emanaldi eskainiko dira ostegunero, ondorengo taldeen emanaldiekin: Mikel Etxekopar & François Rossé, Adarrots, Izaki Gardenak, AIN_1 eta Julen Achiary.